



E. V.

1888

GARREN URTERAKO  
EGUNARIA



DONOSTIAN:  
Ignazio Ramon Baroja-ren semeen moldizkiran.

1887. an





## GIPUZKOAN IZATEN DI LAN azoka edo merkatuak.

Azpeitiyan.....	Astearte guztietan.
Billafrankan.....	Asteazkenen "
Tolosan.....	Larunbat "

### Abelgorri eta cherri feriyak.

Alegriyan.....	Illaren azkenengo astelenean.
Andoainen.....	» bigarren astelenean.
Azkoitiyan.....	» lenbiziko asteazkenean.
Azpeitiyan.....	» irugarren asteazkenean
Billabonan.....	» irugarren astelenean.
Billarrealen.....	» lenbiziko asteartean.
Deban.....	» lenbiziko larunbatean.
Donostiyan.....	» lenbiziko ostegunean.
Elgoibarren.....	» azkenengo larunbatean.
Ernanin....	Illaren bigarren eta azkenengo ostegunean.
Irunen.....	Astearte guztiotan.
Mondragoin.....	Illaren bigarren ostiralean.
Motrikun.....	» irugarren larunbatean.
Onatin.....	» lenbiziko ostiralean.
Oriyon.....	» azkenengò larunbatean.
Oyarzunen.....	Astelen guztietan.
Tolosan....	Illaren lenbiziko astelenean eta irugarren ostegunean.
Usurbillen.....	Illaren irugarren ostegunean.
Zestoan.....	» azkenengo asteazkenean.

Oezaz gañera izan oi dira urtean beiñ feriyak erri batzuetan, nola diran Bergaran Pazkoa Espiritu Santukoetan, Lezon Pazkoa Espiritu Santukoetan eta Gurutze Santuaren Agorrek festaldiyen, Billafrankan Ama Birjiña Agorrekoa, Onatin San Miguel-eten, Azkoitiyan San Andres-eten, Viilarrealen Santa Luziyyetan, Donostiyan eta Azpeitiyan Santo Tomás-eten, Segurian San Bizentetan, Santiagoetan eta Santo Tomas-eten, eta beste geyago.

1888

## GARREN URTERAKO EGUNARIA.



DONOSTIAN  
Ignazio Ramon Baroja-ren semleen moldizkiran  
1887.<sup>an</sup>



KC

AN

## Era Gogoangarriak.

---

Urte au da, Jesu-Kristo Gure Jaunaren jazotzatik 1888garrena.—Mundua sortu zanetik 5870garrena.—Mundu guztia estali zuen ujoldea izan zanetik 4215garrena.—Maria Birjiñaren Sortze manchagabea, fedeko egia bezela agertu zanetik 34garrena.—Gure Aita Santu Leon XIII-garrena Aita Santu danetik 11garrena.—Gipuzkoa-ko probinzia, Kastillarekin batu zanetik 688garrena.—Araba-koa 556garrena.—Bizkaya 517garrena.—Nafarroa 376garrena.—Gure Probinziyako eta Bizkaiko Patroi San Inaziyo Loyolakoa jayo zanetik 397garrena.—Bitorian, Apezpiku edo Obispo jauna jarri zanetik 26garrena.

---

## ¡Bizi bedi Euskara!

---

Euskaldun jayo giñan,  
Euskaldun gera azi,  
Euskaraz zigulako  
Amak erakutsi:  
Euskara laztan maite  
Zabiltz gugaz beti,  
Euskara ill ezkerro,  
Ez degu nai bizi.

---



## URTE BERRIA

Urte au izango da  
guchi gora bera  
on ta chartasunean  
besteak bezela.

Iru zortziko ditu  
ta poztu gaitezen  
ez da bada faltako  
zortzikorik aurten.

Neguban egun motza  
elurretakoa  
udan luziak eta  
eguzki beroa.

Batzubek ilko dira  
ta besteak bizi,  
iltzen diran aientzat  
erregutu beti.

Arboletan ez dira  
agertuko opillak  
zintzilik ta lukainkaz  
kaliak josiyak.

Langille kaletarrak  
egiñik astelen  
ez dira sekuletan  
arkituko zuzen.

Baserritarraak ere  
badabiltz, echian  
dituzten beren lanak  
egiñ bearrian,  
feritikan ferira  
churrut eta churrut,  
echiak egingo du  
beriala purrut.

Arrantzaliak ere  
sagardotegitik  
ez du beñere egingo  
arrantza aundirik.

Anaitasun onean  
bear gera nastu,  
Euskaldunak gerala  
ez sekulan aztu.

Eta guziyen gañez  
gure Jaungoikoa,  
nai dezala guretzat  
urte bat gozoa.

Frrd

## ILLARGIAREN ILLUNTZEA.

Izango da Illbeltzaren 28.<sup>an</sup> eta illunduko da  
illargi osoa.

## ITZ LABURTUEN ADIERAZTEA.

J. K. Jesu Kristo, S. Santu, Sta. Santa, A. Ama, A. S. Aita Santu, ob. obispoa, arz. arzobispoa, ap. apaiza, ab. abadea, birj. birjina, birjk. birjifnak, mr. martiria, mrtk. martiriak, lag. lagunak, fund. fundatzallea, alarg. alarguna, konf. konfesorea, irak irakaslea, kar. kardenala, apaizur. apaizurrena, apost. apostolua, erem. eremutarra, penit. penitentilaria, prof. profeta, eta besteen batzuek ezagutuerrazak diranak.



URTARILLA EDO ILLBELTZA 31 EGUNEKOA  
Itzonenak egunak ordu bete luzatzen dira.

- 1 Igandea. Urteberri. Sta. Eufrosina birj.—*Induljenzia osoa.*
- 2 Astelena. S. Isidoro ob. eta mr. eta s. Konkordio martiria.
- 3 Asteartea. S. Antero A. S. eta s. Daniel mrtk.
- 4 Asteazkena. S. Akilino mr. eta s. Simon Stilita konf., sta. Drafosa mr. eta s. Tito ob. eta konf.
- 5 Osteguna. S. Telesforo A. S. eta mr.
- 6 Ostirala. † Errege Santuen adorazioa.—*Induljenzia osoa.*
- 7 Illargiaren azken laurdena, goizeko 11 ordu eta 32 minututan.—*Eguraldi nastua.*
- 8 Larunbata. S. Julian mr. eta s. Teodoro monjea.—*Gaurtik aurrera ezkonberriak Eletzako be-deinkazioak artu eta ezkonduen meza entzun dezateke.*
- 9 Ig. J. K. Gure Jaunaren batayoa. S. Seberino ab., s. Luziano ap. eta lag. mr. eta J. Kristoren aurreneko miraria.
- 10 Astel. S. Julian mr. eta sta. Basilisa birj.
- 11 Asteazk. S. Iñazio A. S. eta sta. Onorata birj.
- 12 Osteg. S. Benito ab. eta konf. eta s. Arkadio mr.
- 13 Ostir. S. Gumersindo ap. eta mr.
- 14 Illargi berria, goizeko 8 ordu eta 28 minututan.—*Euria.*
- 15 Lar. S. Ilario ob. eta konf., s. Eufrasio ob. eta mr.
- 16 Ig. Jesusen Izen Gozoa. S. Paulo lenbiziko eremutarra eta s. Mauro ab.
- 17 Astel. S. Marzelo A. S. eta mr.
- 18 Asteazk. S. Pedroren katabera Errromakoa, santa Priska birj. eta mr. eta sta. Liberata birj.
- 19 Osteg. S. Kanuto errege eta mr., s. Mario eta lag. mr. lat. cauitus, canoso: lat. cunaris, marino.
- 20 Ostir. S. Fabian A. S. eta s. Sebastian mr. gr. palomas id. lat. castos, venerab.
- 21 Lar. Sta. Ines birj. eta mr. eta s. Fruktuoso ob. eta mr. lat. agnes, pura: id. qui lat. frutas
- 22 Illargiaren lenbiziko laurdena, goizeko 4 ordu eta 39 minututan.—*Elurra.*
- 23 Ig. S. Bizente apaizurrena eta s. Anastasio mrtk. —Donostia-ko San Bizente-ko eleizan berrogei orduak. lat. vincere, el q. vence, greg. anastasi
- 24 Astel. S. Ildefonso arzb. eta s. Raimundo konf. got. regnare
- 25 Asteazk. S. Paulo apostoluaren konbersioa, sta. Elbira birj. eta mr., s. Proheto eta s. Marino m.
- 26 Osteg. S. Polikarpo ob. eta mr. eta sta. Paula alarguna.
- 27 Ostir. S. Juan Krisostomo ob. eta irak., s. Julian, s. Anastasio, Pedro eta beste zazpi lagun mrtk.
- 28 Lar. S. Balero ob. eta konf., s. Julian ob., san Torsi mr. eta s. Zirilo Alejandriako konf.
- 29 Illargi betea, gaueko 11 ordu eta 8 minututan.—*Ormak.*
- 30 Astel. Sta. Martina birj. eta mr., s. Lesmes ab. tians, queta s. Feliz A. S. eta mr.
- 31 Astear. S. Pedro Nolasco merzenarioen fund. gr. Petrus, sta. Marzela alarg., sta. Potamia birj. eta sta. Tri-fena birj. eta mr. cyro de et cyrus, lleno de au

### KANPO-LANAK.

Matsak podatzen dira, arbola inausi edo mugarratu, baratzuriak oraindik erein ditezke, arbola landareak aldatu, lurberriak atera eta ondeatu.



OTSAILLA 29 EGUNEKOA

*Itzametan eginak ordu bat eta eroi luzatzen  
dira.*

- at capre 1 Asteazk. S. Ignazio eta s. Zezilio ob'k, eta mrtk. *Antelo*  
 etas, iluno beata Beridiana birj. eta s. Pionio apaiza. *Sagón bira*  
 & friego 2 Osteg. † Kandeleria, edo A. Birjiñaren *Eliz-*  
 oto de *eliz* *surteza*, griego *λύγεια* dice purificar  
 o roboado. *lito* *blancos* *penitentes*.  
 o roboado 3 Ostir. S. Blas ob. eta mr. eta beato Nikolas Lop-  
 at ventura *gr. blaes* *inocentes* *or. nichao* *10*  
 o roboado *gr. blaes* *inocentes* *or. nichao*  
 o robado 4 Lar. S. Andres Korsino ob., s. José Leonisa-ko  
 o roboado konf., s. Isidoro monjea eta s. Jilberto konf.  
 ③ Illargiaren asken laurdena, gaueko 7 ordu  
 eta 15 minututan.—Ormak.  
 5 Ig. Sesajesimako. Sta. Ageda birj. eta mr. eta  
 s. Martin de la Aszension mr., Gipuzkoako se-  
 mea.—*Indulzenzia osoa.* *gr. agathos, bueno la buen*  
 uro.  
 6 Astel. Sta. Dorotea birj. eta mr., s. Teofilo eta  
 lagk. mrtk. eta s. Guarido kard. eta konf.  
 7 Astear. S. Romualdo ab. eta s. Rikardo Inglate-  
 rrako erregea. *gotico risturin gloriae* *v. adael pa-*  
 ucio, lat 8 Asteazk. S. Juan Mata-ko fund. eta s. Pedro kar. *der gloriosos: got. ria, heroe y jad*  
 reuente. 9 Osteg. Sta. Polonja birj. eta mr. eta s. Nizeforo mr. *gutti*  
 t. apoller 10 Ostir. Sta. Eskolastika birj. eta s. Guillermo konf. *gr. jadon*  
 n destruy 11 Lar. S. Saturnino eta lagk. mrtk. eta A. Birjiña-  
 estruendo ren zazpi serbitzariak. *engreso gr. en bien* *sico*  
 ④ Illargi berria, gaueko 11 ordu eta 42 minu-  
 tutan.—Egu-aizea.  
 12 Ig. Zaldun iñauteri. Sta. Eulalia birj. eta mr. eta  
 s. Melezio ob. eta konf.—*Indulzenzia osoa.* —Be-  
 rrogei orduak Donostia-ko, Santa Maria-ko eleizan  
 13 Astel. S. Benigno mr. eta sta. Katalina Rizzis-  
 koa bir. *lat. bonis y gentis, genero de guerra in-*  
 14 Astear. S. Balentiu ap. eta mr. eta Beato Juan  
 Bautista Konzenzioko. *lat. bonis y gentis, genero de guerra in-*

Garizuma guztian eta Pazkoeko bigarren astekinberriñan ezin artu ditzateke Eleizako bedeinkiaziak, ez eta entzun ere ekanduñen meza. —Brida artu gabe ezin jan diteke aragirik Garizuma guztian. —Naiz Bulda-izan eñib nastu diteske aragiriya eta arraiya Garizuma guztian, ez eta igandie-

IAGURAZ KAMPOA, BARRU EGUN BEAR OI.—BARIKIZUAKO EGUN GUSTIETAN ETA PASKOAKO AURRENKO ZORTZIRETAN BULDA GURUTZEKO ARTURIK IRABAZTEEN DA INDULJENZIA EDO BARKAMEN OSOA BOST ALDARETAKO ESTAZIOAK EGUNAS.

- 15 Asteazk. Austerre. S. Faustino eta s. Jobita seni-  
deak eta mrk., sta. Agape birj. eta mr.—Bijilia  
gaur tu Garizumako ostiral denetan.

16 Osteg. S. Julian eta bost. milla lagun mrtk. un dia Yehov  
eloro. 17 Ostir. S. Julian Kapadoziakoa mr., s. Pedro To-  
mas ob. eta konf. eta s. Eutopio ob. eta konf.  
Gregorio. 18 Lar. S. Eladio Toledo arzb. eta s. Simeon ob.  
Ugaldon. 19 Ig. Garizumako 1<sup>ko</sup>a. S. Gabino ap. eta mr. san  
Lacrimo. Albaro Kordoba-koa, s. Konrado konf.  
20 Astel. S. Leon ob. eta konf. eta s. Eleuterio ob.  
11 Illargiaren lenbiskiko laurdena, goizeko ordu  
batean eta 49 minututan.—Denbora charra.  
21 Astear. S. Feliz ob. eta s. Simako A. S.—Anima.  
22 Asteazk. S. Pedroren katabera Antioquia-koan  
Papias ob. eta konf. eta s. Aristion konf.  
Induljenzia osoa.—Kuartar temporak.  
23 Osteg. Sta. Marta birj. eta mr., sta. Margarita  
Kortonakoa eta s. Florenzio kon.  
24 Ostir. S. Matias apost. eta s. Modesto ob.  
Induljenzia osoa.—Kuartar temporak.  
25 Lar. S. Zesareo kon.—Induljenzia osoa.—Kuar-  
ta temporak.—Obispo jaunak ematen ditu Elei-  
zalxo Ordena sagraduak.  
26 Ig. Garizumako Igurrena. A., Birj Guadalupe-koa  
eta s. Alejandro ob.  
27 Astel. S. Baldomero konf.  
11 Illargi betea, goizeko 11 ordu eta 47 minutu-  
tan.—Egu-aizea.  
28 Astear. S. Roman ab. eta fund.  
29 Asteazk. S. Makario eta bere lagun mrtk.

KANPO-LANAK. etc mes: 2a

Ereiten dira aza-nanoak, patatak eta illarrak, garbitu esparrigodiak. Aldatzen dira erramuak, zumarrik eta zipresak, podatu matsak eta beranduko arbolak, eta ikusi erlauntzak; chertatzen dira udareak eta beste fruta arbolak, eta ekiten zayo udaberri la-  
netarako gauzak prestatzen. *Tarros se pioner  
se cambia por otros trucos  
surge como los nuevos y estrambó*



## MARCHOA EDO EPAILLA 31 EGUNEKOA Edu onetan egunak zazpi ordu laurden iga-roak luzatzen dira.

- 1 Osteg. Aingeru guardakoa, s. Rosendo ob. eta sta. Eudosia penit. eta mr.—*Anima*.
- 2 Ostir. S. Luzio ob. eta mr.
- 3 Lar. S. Emeterio eta s. Zeledonio anayak mrtk., s. Kleoniko, s. Eutropio eta s. Basilisko mrtk.  
*Anima*.
- 4 Ig. Garizumako IIIgarrena. S. Kasimiroerregeeta konf., s. Luzio A. S. eta mr. eta s. Kayo Palatino mrtk.—*Anima*.
- 5 Astel. S. Eusebio eta lagk. mrtk. etas. Adrian mr.  
④ *Illargiaren lenbiziko laurdena, goizeko 3 ordu eta 15 minututan.—Eguraldi nastua.*
- 6 Asteak. S. Biktor eta s. Biktoriano mrtk.. s. Marziano ob. eta mr. eta s. Oleger ob. eta konf.
- 7 Asteak. Sto. Tomas Akino-koa konf. eta irak., sta. Perpetua eta sta. Felizitas mrtk.
- 8 Osteg. S. Juan de Dios fund., s. Julian arzb., san Beremuudo ab. eta konf. eta s. Ponzio apaizur, eta mr.
- 9 Ostir. Sta. Franziska alarg. eta S. Gregorio Nizeno ob.
- 10 Lar. S. Meliton mr.
- 11 Ig. Garizumako IVgarrena. S. Eulojio ap. eta mr. sta. Aurea birj.—*Anima*.—*Gaur asten da Doneostian Pazkukua.*
- 12 Astel. S. Gregorio A. S. eta s. Pedro.  
⑤ *Illargi berria, arratsaldeko 4 ordu eta 40 minututan.—Otz.*
- 13 Asteak. S. Leandro Sebillako arzb., s. Rodrigo mr. eta s. Nizeforo.
- 14 Asteak. Sta. Florentina birj., sta. Matilde erre-giña, s. Prozeso eta s. Martiniano.
- 15 Osteg. S. Raimundo ab. eta fund. eta s. Lonjinios.
- 16 Ostir. S. Julian mr. eta s. Eriberto.

- 17 Lar. S. Patrizio ob., s. José Arimatea-koa, sai. Agrikola ob. eta sta. Jertrudis birj.—Aldareetako gurutzeak eta ekantz edo imajinak estaltzen dira.
- 18 Ig. Lazaro eguna. S. Gabriel Goiaingerua, eta s. Braulio ob.
- 19 Astel. S. José, A. Birjiñaren senar garbia.
- 20 Asteak. S. Nizeto ob. eta mr.—UDABERRIA.
- ⑥ *Illargiaren lenbiziko laurdena, gaueko 8 ordu eta 33 minututan.—Aizeotzak.*
- 21 Asteak. S. Benito ab. eta s. Birilo ob.
- 22 Osteg. S. Deograzias eta s. Bienbenido ob.
- 23 Ostir. Ama Birjiñaren Doloretakoaren eguna. San Biktoriano eta lagk. mr., beato Jose Oriol eta s. Toribio Limako arzb.—*Anima*.
- 24 Lar. s. Agapito eta s. Simeon mrtk., sta. Kata-lina Suezia-koa birj. eta s. Benito konf.—*Anima*.
- 25 Ig. Erramu eguna. A. Birjiñaren anunziazio edo berri-estatea eta Jaungoikoaren Semea A. Birjiñaren errai chit garbietan gizon egitea, eta s. Dimas lapur ona.
- 26 Astel. Santu. S. Braulio ob. eta sta. Eujenia birj. eta mr.
- 27 Asteak. Santu. S. Ruperto ob.  
⑦ *Illargi betea, gaueko 9 ordu eta 57 minututan.—Euria.*
- 28 Asteak. Santu. S. Kastor, s. Doroteo eta san Sisto.—Ezin jan diteke aragirik gaur ta iru egun ondorengoean.
- 29 Osteg. Santu. S. Eustakio ab. eta s. Segundo mr.
- 30 Ostir. Santu. S. Juan Klimako ab. eta s. Kiriko m.
- 31 Lar. Santu. Sta. Balbina birj. eta mr. eta s. Benjamin apaizur eta mr.—Obispo jaunak ematen ditu Eleizako ordena sagraduak.

### KANPO-LANAK.

Ereiten dira liñoa, patatak, garbantuak, aza-erre-polluak, urrazak edo lechuga, eta beste asko ensala-da mueta, azaloreaak eta espinakak. Batzuek asitzent dira artotarako lur iraultzen.



# APIRILLA EDO JORRAILLA 30 EGUNEKOA

*Iñonetan egunak zazpi ordu laurden atdean  
luzatzen dira.*

- 1 Ig. *Pazkoa*. S. Benanzio ob. eta mr., sta. Kata  
lina Sena-koaren zauri-sillua, s. Balerio ab., san  
Ugo ob. eta s. Makario ob.
- 2 Astel. S. Franzisko Paula fund., sta. Maria Ejip  
ziaka eremutarra, eta sta. Teodosia birj.
- 3 Astea. S. Ulpiano eta s. Pankrazio, s. Benito  
Palermokoa eta sta. Engrazia.
- 4 *Ilargiaren azken laurdena, arratsaldeko 12  
ordu eta 31 minututan.* —Euria,
- 5 Asteazk. S. Isidoro Sebillako arzb. —*Anima.*
- 6 Ostir. S. Zelestino A. S., s. Sisto A. S. eta mr.,  
s. Marzelino mr. eta s. Guillermo.
- 7 Lar. S. Epifanio ob. eta mr., s. Ziriako eta beste  
amar santu mrtk. eta bto. Erman José.
- 8 Ig. *Kuasimodo-koa*. S. Dionisio ob. eta bto. Ju  
lian s. Agustingo eta sta. Konjesa bir. eta mr.
- 9 Astel. Sta. Kasilda eta sta. Maria Kleofé. —Gaur  
tik aurrera Abenduña ezkonberriak ar ditzate  
ke Eleizako bedeinkazioak eta entzun ezkonduen  
meza.
- 10 Astea. S. Ezekiel eta s. Daniel profetak.
- 11 Asteazk. S. Leon aundia A. S. eta s. Felipe ob.
- 12 *Ilargi berria, goizeko 6 ordu eta 57 minutu  
tan.* —*Eguraldi nastua.*
- 13 Osteg. S. Biktor eta s. Zenon, sta. Susana birj.  
eta mr., s. Sabas mr. eta s. Julio 1.<sup>a</sup> A. S.
- 14 Lar. S. Tiburcio, s. Baleriano, eta s. Masimo.
- 15 Ig. Sta. Basilisa eta sta. Anastasia mr.

- 16 Astel. S. Toribio ob., sta. Engrazia birj. eta mr.  
eta s. Paterno ob.
- 17 Astea. S. Anizeto A. S. eta mr., beata Ana Ma  
ria Jesusena birj. eta sta. Potenziana.
- 18 Asteazk. S. Eleuterio ob. eta s. Perfekto.
- 19 Osteg. S. Ermogenes, s. Ebodio, s. Kalisto eta san  
Leon IX.<sup>a</sup> A. S.
- 20 *Ilargiaren tenbizioko laurdena, goizeko 11 ordu  
eta 42 minututan.* —*Eguraldi nastua.*
- 21 Ostir. Sta. Ines Monte Pulziano-koa birj., san  
Teotimo eta s. Marzelino obk. eta s. Teodoro.
- 22 Lar. S. Anselmo arzb. eta s. Simeon ob.
- 23 Ig. San Joseren Patrozinio edo bitartekotasuna,  
s. Sotero eta s. Kayo A. S.
- 24 Astea. S. Jorje mr. eta s. Jerardo ob.
- 25 Asteazk. S. Gregorio ob.. s. Fidel mr., s. Eusebio,  
s. Sabas eta s. Melito ob.
- 26 Osteg. S. Kleto eta s. Marzelino A. S. eta mr.
- 27 *Ilargi betea, goizeko 6 ordu eta 12 minututan.*  
—Aizeak.
- 28 Ostir. S. Anastasio A. S., s. Toribio Mogrobejo  
arzb. eta s. Pedro Armengol konf.
- 29 Lar. S. Prudenzio ob. Arabako Patroi edo goar  
taria. *Araban jai osoa.* s. Bidal mr. eta san  
Patrizio eta lagk. mrtk.
- 30 Astea. Sta. Katalina Sena-koa birj., s. Indalecio  
ob., s. Pelegrin eta s. Amador eta lagk. mrtk.

## KANPO-LANAK.

Ogiak jorratzen dira, arto-lurrak prestatiak eta  
ereiten asi. (EZAGUTUA DAGO GOIZ EREITEN DAN ARTOAK  
GEYENEAN OBETO EMATEN DUELA.) Ereiten dira baratz  
belar mueta geyenak, oro bat chikoriak eta kardoak.  
Landatzen dira lechugak eta marrubiak.



## MAYATZA EDO ORILLA 31 EGUNEKOA

Il onetan egunak bost ordu laurden  
luzatzen dira.

- 1 Asteak. S. Felipe eta Santiago apostoluak.
- 2 Asteazk. S. Atanasio ob. eta s. Sejismundo errege eta mr.
- 3 Illargiaren azken laurduna, gaueko 11 ordu eta 37 minututan.—Denbora ederra.
- 4 Osteg. Gurutze Santuaren arkitzea.
- 5 Ostir. Sta. Monika alarg. eta s. Porfirio ap.
- 6 Lar. S. Pio V.<sup>a</sup> A. S., s. Agustiñen konbescioa, s. Anjel mr. eta s. Masimo ob.
- 7 Astel. S. Estanislao ob. eta mr.—*Induljenzia osoa*.—Iru egun oetan dira Aszensio aurreko letaniak.
- 8 Asteak. S. Migel goiaingeruaren agertzea.  
*Induljenzia osoa*.
- 9 Asteazk. S. Gregorio Nazánzio-koab., s. Gregorio Ostiakoa ob. eta s. Beato.  
*Induljenzia osoa*.
- 10 Osteg. † Jesu-Kristo Gure Jaunaren Zeruragotzea edo Aszensio eguna. S. Antonio Florenziako arzb.
- 11 Ostir. S. Mamerto ob. eta s. Mayeul ab.
- 12 Illargi berria, goizeko ordubataterdian.—*Euria*.
- 13 Lar. Sto. Domingo Kalzada-ko konf.
- 14 Astel. S. Bonifazio mr. eta s. Pakomio ab.
- 15 Asteak. S. Isidro Nekazaria, Madrillko patroia, eta s. Torkuato ob. eta mr.
- 16 Asteazk. S. Juan Nepomuzeno mr. eta s. Ubaldo ob.
- 17 Osteg. S. Paskual Bailon konf.
- 18 Ostir. S. Feliz Kantalizio konf. eta s. Benanzio martiria.

● Illargiaren lenbiziko laurduna, gaueko 10 ordu eta 55 minututan.—Euria.

- 19 Lar. S. Pedro Zelestino A. S., sta. Pudenziana birj., eta s. Ibo ap.—Ezin jan diteke aragírik eta barau egin bear da.—Induljenzia osoa.
- 20 Ig. *Pazkoa Espíritu Santuhoa*. S. Bernardino Sena-ko eta s. Baudilio mr.
- 21 Astel. Sta. Maria Sokors.
- 22 Asteak. Sta. Rita de Kasia-ko alarg., sta. Kiteria eta Julia birjk. eta mrtk.—Donostiako kayerko festa.
- 23 Asteazk. Santiago apostoluaren agertzea.  
*Induljenzia osoa*.—Kuarta temporak.—Baraua.
- 24 Osteg. S. Robustiano mr. eta s. Juan Franzisko Rejis konf.—*Anima*.
- 25 Ostir. S. Gregorio VII.<sup>a</sup> A. S., s. Urbano A. S. eta mr., sta. Maria Magdalena Paziz-ko birj. eta s. Jenadio ob.  
*Induljenzia osoa*.—Kuarta temporak.—Baraua.
- Illargi betea, arratsaldeko ordubataterdian.—*Eguraldi charra*.
- 26 Lar. S. Felipe Neri fund. eta s. Eleuterio mr.  
*Induljenzia osoa*.—Kuarta temporak.—Baraua.—Obispo jaunak ematen ditu Eleizako ordena sagraduak.
- 27 Ig. *Trinidad eguna*. S. Juan mr.
- 28 Astel. S. Justo eta s. Jerman obk. eta konfk.
- 29 Asteak. S. Masimo ob., s. Konon eta bere semeak mrtk. eta s. Sisinio eta lagunak mrtk.
- 30 Asteazk. S. Fernando Espanako errege eta konf.
- 31 Osteg. *Korpus Kristi*. Sta. Petronila birj.

## KANPO-LANAK.

Il onetan artoak ereiten, ongarritzen eta jorratzen dira. Ogiai kentzen zaizkate belar gaitzoak. Ereiten dira erremolachak, farduaak, meloi mueta guziak eta baberrunak. Landatzen dira azaloreak, chikiratzen chekorraak eta zerriak.



## GARAGARILLA 30 EGUNAKOIA.

**I**llargiaren egunak lutzaten dira ordu laurdenean bat 21 garreneraño, eta laburtzen dira lau bat minutu illaren atzeneraño.

- 1 Ostir. S. Segundo ob. eta mr., s. Iñigo ab., s. Simeon monjea, s. Tespezio mr. eta s. Panfilo.
- 2 **I**llargiaren azken laurdena, goizeko 12 ordu eta 43 minututan.—Eguraldi nastua.
- 3 Lar. S. Marzelino, s. Pedro mr., s. Juan Ortega eta s. Ejenio konf.
- 4 Astel. S. Franzisko Karakziolo konf. eta sta. Santurina birj. eta mr.
- 5 Astear. S. Bonifazio ob. eta mr. eta s. Sancho mr.
- 6 Asteazk. S. Norberto arzb. eta s. Klaudio ob.
- 7 Osteg. S. Pedro eta lagk. mrtk. eta s. Paulo ob.
- 8 Ostir. Jesusen Biotz chit Santuaren eguna, San Salustiano konf. eta s. Eraklio ob.
- 9 Lar. S. Primo eta s. Feliziano mrtk.
- 10 **I**llargi berria, arratsaldeko 4 ordu eta 23 minututan.—Eguraldi nastua.
- 11 Ig. Sta. Margarita erregiña, s. Krispulo eta san Restituto mrtk. eta s. Timoteo mr.
- 12 Astel. S. Bernabé apost.
- 13 Asteazk. S. Onofre konf., s. Leon konf. eta santa Antonina birj. eta mr.
- 14 Asteazk. S. Antonio Paduakoa konf.
- 15 Osteg. S. Basilio ob., konf. eta irakaslea.
- 16 Ostir. S. Modesto eta sta. Kresenzia.
- 17 Lar. S. Kiriako eta sta. Julita mrtk. eta s. Aureliano ob.
- 18 Ig. S. Manuel eta lagk. mrtk., sta. Teresa erregiña, sta. Sancha birj. eta s. Montano mr.

**C** **I**llargiaren lenbiziko laurdena, goizeko 6 ordu eta 39 minututan.—Euria.

- 18 Astel. S. Marko, s. Marzeliano, s. Ziriako eta santa Paula mrtk., eta sta. Isabel birj.
- 19 Astear. S. Jerbasio eta s. Protasio mrtk., sta. Julian Falkoneri-koa birj. eta s. Bonifazio ob. eta mr.
- 20 Asteazk. S. Silberio mr., sta. Florentina birj., san Nobato ap. eta s. Makario ob. eta konf.

## UDA.

- 21 Osteg. S. Luis Gonzaga konf., s. Eusebio obispoa eta mr., eta s. Raimundo ob.
- 22 Ostir. S. Paulino ob., s. Akazio mr., santa Kon sorzia birj. eta s. Albano mr.
- 23 Lar. S. Juan mr., eta s. Simon Stilita chikiena.
- 24 **I**llargi betea, gaueko 10 ordu eta 28 minututan.—Eguraldi ederra.
- 25 Ig. S. Juan Bautistaren jayotza.
- 26 Astel. S. Guillermo ab., s. Eloy ob., sta. Orosia birj. eta mr. eta sta. Febronia birj. eta mr.
- 27 Astear. S. Juan eta s. Paulo anayak, eta s. Pelayo martiria.
- 28 Asteazk. S. Zoilo mrt.
- 29 Osteg. S. Leon II.<sup>a</sup> A. S. eta s. Paulo konf. *Bijilia eta Baraua.*
- 30 Ostir. † San Pedro eta San Paulo apostol.
- 30 Lar. S. Paulo apostoluaren oroipena, s. Marzial ob. eta sta. Potamiana.

## KANPO-LANAK.

Belarrak biltzen dira, jorratu artoak bigarren al dian, eta bear ainbat bakandu. Arbolak chertatu eta liñoa atera.

# UZTA 31 EGUNEKOA

*Illonetan egunak ordu bete laburtzen dira.*



- 1 Ig. Jesu Kristo Gure Jaunaren Odola. S. Kasto eta s. Sekundino mrtk.
- 2 Illargiaren azken laurdena, goizeko 3 ordu eta 42 minututan.—Bero.
- 3 Astel. A. Birjinaren bisitazioa, eta s. Lonjinos.
- 4 Astear. S. Trifon mr. eta s. Jazinto mr.
- 5 Asteazk. S. Laureano arzb. eta mr., beato Gaspar Bono konf. eta s. Teodoro ob. eta mr.
- 6 Osteg. Sta. Zoa mr., s. Migel de Sanktis konf. eta sta. Filomena birj. eta mr.
- 7 Lar. S. Fermin ob. eta mr. *Nafarroako patrona*, eta s. Odon ob.
- 8 Ig. Sta. Isabel Portugal-ko erregiña, eta san Kiliano mr.
- 9 Astel. S. Zirilo ob. eta mr.
- 10 Illargi berria, goizeko 6 ordu eta 6 minututan.—Eguraldi ona.
- 11 Asteazk. S. Pio I.<sup>a</sup> A. S. eta. sta. Beronika birj.
- 12 Osteg. S. Juan Gualberto ab. eta fund. eta santa Marziana birj. eta mr. eta s. Nabor mr.
- 13 Ostir. S. Anakleto mr. eta s. Turiano ob.
- 14 Lar. S. Buenabentura ob. eta s. Justo mr.
- 15 Ig. S. Enrike konf., s. Kamilo Lelis fund. eta s. Antioko eta s. Ziriako mrtk.
- 16 Astel. Gurutze Santuaren garaipena edo triunfoa, A. Birj. Karmengoa, eta s. Sisenando mr.
- 17 Illargiaren lenbizioko laurdena, goizeko 12 ordu eta 2 minututan.—Eguraldi ederra.
- 18 Asteazk. S. Alejo konf. eta s. Leon IV.<sup>a</sup> A. S.
- 19 Asteazk. Sta. Sinforsa eta bere zazpi seme martiriek, sta. Marinabirj. eta mr. eta s. Federiko ob.

- 19 Osteg. Sta. Justa eta sta. Paula birjk. eta mrtk. sta. Makrina birj. eta s. Bizente Paul fund.
- 20 Ostir. S. Elias prof., sta. Librada eta sta. Margarita birjk. eta s. Jeronimo Emiliano fund.
- 21 Lar. Sta. Prasedes birj. eta sta. Julia birj. eta mr., s. Biktor mr. eta s. Daniel prof.
- 22 Ig. Sta. Maria Magdalena penitenzilaria.
- 23 Astel. S. Apolinar ob. eta mr., s. Liborio ob. eta s. Bernardo eta lagunak mrtk.
- 24 Illargi betea, goizeko 5 ordu eta 35 minututan.—Eguraldi nastua.
- 25 Asteazk. † Santiago aundiarena, apostolua, Espanako patroi edo goartaria, eta s. Kristobal mr.
- 26 Osteg. Sta. Ana, gure Andre Birjinaren ama.
- 27 Ostir. S. Pantaleon mr. eta s. Aurelio eta lagunak. mrtk.
- 28 Lar. S. Nazario, s. Zelso eta s. Biktor mrtk. eta s. Inozenzio A. S. eta konf.
- 29 Ig. Sta. Marta birj., s. Felis mr., s. Sinplizio, s. Faustino eta sta. Beatriz, senideak eta mr.
- 30 Astel. S. Abdon, s. Senen, sta. Julita eta s. Rufino.
- 31 Illargiaren azken laurdena, gaueko 8 ordu eta 19 minututan.—Bero.
- 32 Asteazk. San Ignazio Loyolakoa, Jesusen Konpaniaren fundatzailea, eta Gipuzkoa eta Bizkaiko patroia. Jai osoa. S. Juan Kolonbini fund. eta s. Fabio mr.

## KANPO-LANAK.

Illonetan ogiak ebaki eta sartzen dira echean, Jaungoikari biotzetik eskerrak emanaz egiten dizkigun mesede aundiak gatik. Gal-ondoan ereiten da baberruna ondo ematen duen lekuetan, bestela liño berdea paocharekin. Tipulak eta azanoriak ereiten dira oro bat, aldatu neguko aza eta garbantzuak bildu.



## ABUZTUA 31 EGUNAKO

*Ull onetan egunak ordu bat eta erdi laburtzen dira.*

- 1 Asteazk. S. Pedro Adbinkula eta s. Leonzio mrt. — Daur arratsaldian eta bigar egun guztian irabazten da Induljenzia osoa, edo Porziunkulakoa dei-tzen zayon Jubileoa, S. Franziskoren ordenako Eleizetan, konfesatu eta komulgaturik egiten dan estazio bakoitzarekin.
- 2 Osteg. Ama Birjiña aingeruena, s. Esteban mrt., s. Pedro ob., s. Alfonso Maria Ligorio ob. eta beata Juana Aza alarguna.
- 3 Ostir. S. Esteban lenbiziko martiriaren gorputz-arkitzea, eta s. Nikodemus eta s. Gamaliel.
- 4 Lar. Sto. Domingo Guzmangoa fund.
- 5 Ig. Ama Birjiña Elurretakoa.
- 6 Astel. J. K. gure Jaunaren bestiruditzea, s. Justo eta s. Pastor anayak mrtk. eta s. Sisto mrt.
- 7 Astear. S. Kayetano fund., s. Alberto Siziliakoa konf. eta s. Donato ob. eta mrt.
- 8 *Illargi berria, arratsaldeko 6 ordu eta 10 minututan.—Eguraldi ona.*
- 9 Asteazk. S. Ziriako, s. Largo eta s. Smarado mrtk.
- 10 Ostir. S. Roman mrt.
- 11 Lar. S. Tiburzio mrt. eta sta. Susana birj.
- 12 Ig. Sta. Klara birj. eta s. Anizeto mrt.
- 13 Astel. S. Kasiano ob. eta s. Ipolito mrk.
- 14 Astear. S. Eusebio ap., sta. Zentela eta sta. Elena mrtk. — Barau eguna eta bijilia, ezin jan dite ke aragirik.
- 15 Asteazk. † Ama Birjiñaren Asunzioa edo zeru-ratzea.

- 16 Osteg. S. Roke eta s. Jazinto konfk. eta s. Diomedes mr.
- 17 Ostir. S. Paulo eta sta. Juliana senideak mrtk. eta s. Mamete mr.
- 18 Lar. S. Agapito mr., sta. Elena alarg., santa Klara Monte Falko-koa eta s. Floro mrtk.
- 19 Ig. S. Joakin, Ama Birjiñaren Aita, s. Luis ob., s. Mariano eremut., s. Majin mr. eta s. Timoteo martiria.
- 20 Astel. S. Bernardo ab., s. Manuel prof., s. Kristobal eta s. Leobijildo mrtk.
- 21 Astear. Sta. Basa eta bere iru seme mrtk.. san Bonoso eta s. Masimiliano mrtk., eta sta. Juana Franziska Fremiot fund.
- 22 *Illargi betea, arratsaldeko 4 ordu eta 10 minututan.—Bero.*
- 23 Asteazk. S. Timoteo, s. Fabriziano, s. Filiberto eta s. Sinforiano mrtk.
- 24 Osteg. S. Felipe Benizio konf., s. Kiriko. san Klaudio eta lagk. mrtk.
- 25 Ostir. S. Bartolomé apost. eta sta. Aurea birj.
- 26 Lar. S. Luis Franziako errege eta s. Jines Arles-koa mr.
- 27 Ig. S. Zeferino mr. eta s. Adrian mr.
- 28 Astel. S. Rufo ob. eta mr., s. José Kalazanz-goa, eta sta. Teresa Jesusenaren biotz barnatzea.
- 29 Astear. S. Agustín ob. eta Eleizako irak.
- 30 Asteazk. S. Juan Bautistaren lepo ebakitzia.
- 31 *Illargiaren asken laurdena, arratsaldeko 2 ordu eta 7 minututan.—Turmoi-denbora.*
- 32 Osteg. Sta. Rita Lima-koa birj. eta s. Felis mr.
- 33 Ostir. S. Ramon Non-nato konf. eta s. Emeterio eta s. Zeledonio martirien erlikia aldatzea.

## KANPO-LANAK.

Erraloak egiten dira lurruk prestatzeko. Ereiten da paocha eta arbia, azak eta eskarolak aldatzen dira.



## ÁGORRA 30 EGUNÉKOA

Iluronetan egunak zazpi ordu laurdenean laburtzen dira.

- 1 Lar. S. Jil ab. eta amabi anai mrtk., s. Bizente eta s. Leto mrtk. eta s. Bizente ap. eta mrt.
- 2 Ig. S. Esteban Ungriako errege, s. Antolin mr. eta s. Justo ob.
- 3 Astel. S. Sandalio mr. eta s. Ladislao errege.
- 4 Astear. Sta. Kandida alarg., sta. Rosa Biterbokoa, sta. Rosalia birj., s. Moises Israeldarren buruzaña, s. Marzelo mrt. eta sta. Ida alarguna.
- 5 Asteazk. S. Lorenzo Justiniano ob., sta. Obdulia birj. eta mr. eta s. Julian ob.
- 6 Osteg. S. Eujenio mrt. eta s. Eleuterio ab.
- 7 ~~Ilargi berria, goizeko 4 ordu eta 46 minututan.—Eguraldi ederra.~~
- 8 Lar. † Ama Birjiñaren jayotza. S. Adrian mr. eta s. Eusebio mr.
- 9 Ig. Maria Birjiñaren Izen gozoa, S. Gorgonio mr. eta sta. Maria de la Kabeza.
- 10 Astel. S. Nikolas Tolentino konf., sta. Pulkeria birj. eta s. Deodardo ob. eta mr.
- 11 Astear. S. Pedro eta s. Jazinto mrtk., s. Paziente arzb. eta s. Pafnuzio ob.
- 12 Asteazk. S. Leoncio mr.
- 13 ~~Ilargiaren lenbisioko laurdena, gaueko 9 ordu eta 49 minututan.—Denbora nastua.~~
- 14 Ostir. Gurutze santuaren alchaera eta s. Kreszentio mrt.—Lezoko Errromeriya.
- 15 Lar. S. Nikomedes, sta. Emilia eta s. Jeremias mrtk.
- 16 Ig. Maria Birjiñaren Dolore gloriatsuak, S. Cornelio A. S. eta s. Zipriano mrtk., s. Rojelio mr. eta sta. Eufemia birj. eta mr.

- 17 Astel. S. Pedro Arbues mrt. eta s. Franziskoren ilaga ezartze miraritsua.
- 18 Astear. Sto. Tomas Billanueha-koa, arzb., s. José Cupertino konf. eta s. Metodio ob.
- 19 Asteazk. S. Jenaro mr.  
*Induljenzia osoa.—Kuarta temporak.—Baraua.*
- 20 Osteg. S. Enstakio eta lagk. mrt'k.
- 21 ~~Ilargi betea, goizeko 5 ordu eta 14 minututan.—Denbora nastua.~~
- 22 Ostir. S. Mateo apost. eta ebanj., s. Alejandro ob. eta mrt. eta s. Eusebio mr.  
*Induljenzia osoa.—Kuarta temporak.—Baraua.*
- 23 Lar. S. Maurizio mr. eta s. Emmerano ob.  
*Induljenzia osoa.—Kuarta temporak.—Baraua.*  
Obispo jaunak ematen ditu Eleizako Ordena sagraduak. UDAZKENA.
- 24 Astel. Ama Birjiña Merzedeskoa, eta s. Jerardo.
- 25 Astear. S. Lope ob. eta s. Formerio mr.
- 26 Asteazk. S. Zipriano eta sta. Justina mrtk.
- 27 Osteg. S. Kosme eta s. Damian mrtk. eta san Eleazaro konf.
- 28 Ostir. S. Wenzeslao mr.. sta. Eustokia birj., beato Simon de Rojas konf. eta sta. Lioba birj.
- 29 ~~Ilargiaren azken laurdena, goizeko 8 ordu eta 20 minututan.—Denbora nastua.~~
- 30 Lar. S. Migel goiaingerua eta s. Grimoaldo konfesorea.
- 31 Ig. S. Jeronimo Eleizako irak., s. Gregorio ob., s. Onorio ob. eta sta. Sofia alarg.

## KANPO-LANAK.

Ereiten dira azak, lechugak, errabanoak edo lucharbiak eta espinakak. Illeran babak eta illar berdeak. Erleai kentzen zaye eztia. Asitzen da matxa eta gatzaina biltzen, eta egiten dira lekuaren lekuaren beste lan mueta asko. *el mes q viene igual*

# URRIA 31 EGUNEKOA



*Hil onetan egunak zazpi ordu laurden laburtzen dira.*

- 1 Astel. S. Remijio arzb. eta s. Berisimo mr.
- 2 Astear. Aingeru goardakoak, S. Saturio konf., s. Leodegario ob. eta mr. eta sto. Tomas ob.
- 3 Asteazk. S. Kandido mr. eta s. Jerardo ab.
- 4 Osteg. S. Franzisko Asis fund. eta sta. Aurea birj.
- 5 Ostir. S. Froilan eta s. Atilano obk., s. Plazido mr., sta. Gala alarg. eta sta. Karitina birj.
- 6 **Ilargi berria, arratsaldeko ordu 2 eta 24 minututan.—Denbora nastua.**
- 7 Lar. S. Bruno fund., sta. Fe birj., s. Primo eta s. Feliziano mrtk. eta s. Magno ob.
- 8 Ig. Ama Birjiña Errosariyokua. S. Markos A. S., s. Serjio eta s. Bako mrtk.
- 9 Errosarioko kofradiakoak Induljenzia osoa gaur irabazi dezateke konfesatu eta komulgaturik, Errosarioko aldarea edo kapilla bisitatzen badute.
- 10 Astel. Sta. Brijida alarg. eta sta. Tais penitenzil.
- 11 Asteazk. S. Dionisio Areopajita ob. eta lagk. mrtk.
- 12 Asteazk. S. Franzisko Borja eta s. Luis Beltran konf.
- 13 Osteg. S. Fermín konf. eta s. Nikasio mr.
- 14 Ostir. Zaragozako Ama Birjiña Pillarekoa, san Felis eta Zipriano mrtk., s. Serafin konf., santa Domnina mr. eta s. Wilfrido ob.
- 15 **Ilargiaren lenbiziko laurdena, goizeko 5 ordu eta 18 minututan.—Denbora nastua.**
- 16 Lar. S. Fausto mr. eta s. Eduardo errege.
- 17 Ig. S. Kalisto A. S. eta sto. Domingo konf.
- 18 Astel. Sta. Teresa Jesusena birj. eta fund. Espana-ko patroya eta s. Bruno ob. eta mr.
- 19 Astear. S. Galo ab. eta sta. Adelaida birj.

- 20 Lar. Sta. Irene birj. eta mr., s. Juan Kanzio konf. eta s. Artemio mr.
  - 21 Ig. Sta. Ursula eta bere amaika milla lagun birj., s. Ilarion ab. eta sta. Kolumbiana birj.
  - 22 Astel. Sta. Maria Salomé alarg.
  - 23 Astear. S. Pedro Paskual ob., s. Juan Kapistrano konf., s. Serbando eta s. Jermano martk. eta san Teodoro ap. eta mr.
  - 24 Asteazk. S. Rafael goiaingerua eta s. Bernardo Kalbó ob.
  - 25 Osteg. S. Krisanto eta sta. Daria mrtk., s. Krispin eta s. Krispiniano mrtk., s. Fructos konf., san Gabino, s. Proto, s. Jenaro eta s. Bonifazio mrtk.
  - 26 Ostir. S. Ebaristo mr. eta s. Bernardo ob.
  - 27 Lar. S. Bizente, sta. Sabina eta sta. Kristeta mrtk., eta s. Esteban errege.
  - 28 Ig. S. Simon eta s. Judas Tadeo apostk., santa Sabina birj. eta mr. eta s. Faron ob.
  - 29 **Ilargiaren azken laurdena goizeko ordubata eta 45 minututan.—Aire Ozak.**
  - 30 Astel. S. Narziso ob. eta sta. Eusebia birj.
  - 31 Astear. S. Klaudio mr. eta sta. Pelajia birj.
- Barau eguna.*

## KANPO-LANAK.

Hil onetan biltzen dira artoa, baberruna, gaztañak eta beste fruta mueta asko. Oroi-gaitean oek bilteean Jaungoikoari zor diozkagun eskerrak emateaz, eta eska dezayogun digun onginayagatik, segi de-zala aurrerá ere bear ditugun frutuak ematen. Aurreko illekox ereite eta lanaik egin ditezke, eta gañera ereiten dira allorbea eta alpapa.



*III onetan egunak bost ordu laurden laburtzen dira.*

- 1 Osteg. † *Santu gustien jaya*, sta. Maria mr.
- 2 Ostir. Anima bedeinkatuen oroipena eta santa Eustokia birj., eta mr.—Konfesatu eta komulgaturik beren Parroquia bisitatzen dutenak pakeagatik erregutuaz.—Induljenzia osoa.
- 3 Lar. S. Balentin ap. eta mr., Zaragozako ezin kontaal mr., eta sta. Benefrida birj. eta mr.
- 4 Ig. S. Karlos Borromeo ob. eta sta. Modesta birj.
- 5 Astel. S. Zakarias eta sta. Isabel, s. Juan Bautistaren gurasoak, eta s. Leto apaiza.
- 6 Astea. S. Leonardo konf. eta s. Sebero ob. eta martiria.
- 7 Asteazk. S. Florenzio ob., s. Antonio mr. eta san Enjelberto ob. eta mr.
- 8 Osteg. S. Seberiano eta lagunak mrtk.
- 9 Ostir. S. Teodoro mr., Gurutze santu Balagerkoa, eta Salbatzaldearen Eleizaren konsagrazio Erromakoa.
- 10 Lar. S. Andres Abelino konf. eta s. Miles mr.
- 11 *Illargiaren lenbiziko laurdenea, arratsaldeko 4 ordu eta 5 minututan —Euria.*
- 12 Asteazk. Ama Birjiñaren Patrozinio edo bitartekotasuna. S. Martin ob. eta s. Menas mr.
- 13 Astel. S. Martin mr., s. Diego Alkala-koa konf., s. Milan, s. Nilo eta s. Teodoro konf.
- 14 Astea. S. Eujenio III.<sup>a</sup> arzb., s. Estanislao Koska, konf., s. Omobono merkataria, s. Arkadio mr. eta s. Nikolas A. S.
- 15 Asteazk. S. Serapio mr. eta s. Lorenzo ob.

- 15 Osteg. S. Eujenio I.<sup>a</sup> arzb., s. Leopoldo konf., san Didier eta s. Malo obispoak.
- 16 Ostir. S. Rufino eta s. Elpidio eta lagk. mrtk.
- 17 Lar. Sta. Jertrudis aundia birj., s. Asisklo eta sta. Biktoria mrtk., s. Gregorio mirarigillea ob., s. Dionisio ob., s. Alfeo eta s. Zakeo mrtk.
- 18 Ig. S. Masimo ob. eta s. Roman mr.
- 19 *Illargi betea, arratsaldeko 3 ordu eta 5 minututan.—Izotsak.*
- 20 Astel. Sta. Isabel Ungriako erregiña eta s. Ponziano mr.
- 21 Astea. S. Felis Balois-koa fund. eta s. Nersasmr.
- 22 Asteazk. A. Birjiñaren presentazioa, s. Jelasio mr., s. Onorio mr. eta s. Alberto ob.
- 23 Ostir. S. Clemente mr. eta s. Juan Bueno konf.
- 24 Lar. S. Juan de la Kruz konf., s. Krisogono mr., sta. Flora eta sta. Maria birjk.
- 25 Ig. Sta. Katalina birj. eta s. Merkurio mr.
- 26 Astel. A. Birjiñaren ezkontza, s. Pedro ob. eta mr. eta s. Beato ab.
- 27 *Illargiaren azken laurdenea, arratsaldeko 5 ordu eta 10 minututan.—Eguraldi ederra.*
- 28 Asteazk. S. Gregorio III.<sup>a</sup> A. S.
- 29 Osteg. S. Saturnino ob. eta mr.
- 30 Ostir. S. Andres apost. eta sta. Maura birj.

### KANPO-LANAK.

Lurrak erabiltzen dira belar gaiztoak galtzeko. Ebakitzenten dira matsak eta kanabelak, bildu negurako egurra, udako aza aldatu, ogiak erein, garoa eta orbel acheratu.



## ABENDUA 31 EGUNAKO.

III onetan egunak laburtzen dira ordu laurdental 21 garreneraño, eta andik azkeneraño lan bat minutu luzatzen dira.

- 1 Lar. Sta. Natalia alarg. eta s. Eloi ob. Ezkonberriak ezin artu ditzateke Eleizako bedeinkazioak, ez eta entzun ere ezkonduen meza, ligartik Ilbeltzaren zazpigarren egunaeraño.
- 2 Ig. Abenduko I. koa Sta. Bibiana birj., s. Pedro Krisologo arzb. eta s. Nono ob.
- 3 Astel. S. Franzisko Jabier konf. eta s. Kasiano mr.
- 4 Ilargi berria, goizeko 9 ordu eta 55 minututan.—Otz.
- 5 Asteazk. S. Sabas ab. eta s. Anastasio mr.
- 6 Osteg. S. Nikolas ob. eta sta. Askla birj.—Barau eguna.
- 7 Ostir. S. Ambrosio ob. eta Eleizako irak. s. Agaton mr. eta sta. Fara monja.—Barau eguna.
- 8 Lar. † A. Birjiñaren Konzesio edo sortze pertugabea, España eta bere Indien patroia, san Eutikiano mr. eta s. Romariko ab.
- 9 Ig. Abenduko II. garreña Sta. Leokadia birj.
- 10 Astel. Sta. Eulalia Merida-koa birj., A. Birjiña Loreto-koa eta s. Melkiades mr.
- 11 Ilargiaren lenbiziorko laurdena, goizeko 6 ordu eta 35 minututan.—Etxarra.
- 12 Asteazk. S. Donato mr., eta A. Birj. Guadalupekoaren agertzea.
- 13 Osteg. Sta. Luzia birj. eta mrt.
- 14 Ostir. S. Nikasio ob., s. Justo eta s. Abundio.—Barau eguna.
- 15 Lar. S. Eusebio mr. eta s. Baleriano ob.—Barau eguna.
- 16 Ig. Abenduko III. garreua S. Valentín mr., iru aur santu Babilonia-koak, eta s. Adon arzb.
- 17 Astel. S. Lazaro ob. eta s. Franzisko Senakoa kon.

- 18 Asteazk. A. Birjiñaren erditzearen ichedona, 105.
- 19 Ilargi letea, goizeko 10 ordu eta 30 minututan.—Denbora gogorra.
- 20 Asteazk. S. Nemesio mr.—Kuartar temporak.—Barau eguna.—Induljenzia osoa.
- 21 Osteg. Sto. Domingo S. los-koa ab. eta konf.
- 22 Ostir. Sto. Tomas apostolua.—Kuartar temporak.—Barau eguna.—Induljenzia osoa.—NEGUA.
- 23 Lar. S. Demetrio mr.—Kuartar temporak.—Barau eguna.—Induljenzia osoa.—Obispo jaunak ematen ditu Eleizako Ordena sagraduak.
- 24 Asteazk. S. Gregorio mr.—Barau eguna ta bijilia, ezin jan diteke aragirik.
- 25 Asteazk. J. K. Gure Jaunaren jayotza, santa Anastasia eta sta. Eugenia mrtk. Induljenzia osoa iru mezatako bakoitzean.
- 26 Asteazk. S. Esteban lenbiziko mr. eta s. Marino mr.—Induljenzia osoa.
- 27 Ilargiaren azken laurdena, goizeko ordu 5 eta 49 minututan.—Aizlea ta euria.
- 28 Osteg. S. Juan apost. eta ebanjelaria, eta s. Teodoro konf.
- 29 Ostir. Stu. Inozente mrtk.
- 30 Lar. Sto. Tomas Kantuariense ob. eta mr.
- 31 Ig. Santiago apostoluaren gorputz-aldatzea, eta s. Sabino ob. eta mr.
- 32 Asteazk. S. Silbestre A. S. eta konf.

## KANPO-LANAK.

III onetan nekazariak zer lan egiten bear duen, ozta esan diteke; ala ere, ereitzen dira baratzia belar asko, arbolak mugarratu edo inausi, orbela bildu, eta baratzuriak erein. Erraman barrena ontzietan azitzen diran Toreak otzak galdu ez ditzan, eta aterra kanpora eguzki ederra danean.

Goiz jaikitzen diran nekazariak, abillak eta langilreak, baña berandu jaikitzen diranak, alperrak, ondatzalleak.



## IZÉR APAREJUBA!

Nagusi batek zuben  
morroi bat echian  
iruki nai zubena  
denbora luzian.

Zegon mutiko arren  
biar biarrian  
bañan ustez zekarren  
beraren kaltian.

Bialdurikan maizcho  
arduaren billa  
denbora luze gabe  
joatentzan mutilla.

Lenbizi garbiturik  
ederki botilla  
esanikan obia  
etorri derilla.

Aruntzian utsikan  
onuntzian gañez  
ardo billa zijuán  
saltoka ta pozez.

Betetzeko tabernan  
altzuten onenez  
naiz echera orduko  
tantorik izan ez.

Nausiyaren sudurrak  
noiz bait ziran puztu  
ikusirkik ardua  
etzegola justu.

Bere moduz pentsatzen  
«mutillak dit ustu

bestela bidian da  
botilla zapuztu.»  
Galdeziyon arturik  
kontu mereziya  
—ardo billa juatian  
(esantzak egiya)  
¿zintzurretilk barrena  
joatentzaik erdiya?—  
—Ez jauna.....

—Barkatuko  
diat. Ez aiz fiya?—  
Zafatzeko morroyak  
nola zan abilla  
eranzun zuben azkar  
sorturik naspilla:  
—Ez det jauna progatzen  
nuanian billa  
baizik dakartanian  
beteta botilla.

## JESUSEN JAYOTZAN

Esna kristabak, ernai jendeak  
Alcha kontentuz bakoitza,  
Aditu berri zeruko audi  
Jesus onaren jayotza.

Guazen agudo, Belena ariñ  
Gelditu bage bidean,  
Guazen alaiki, pozez, kontentuz  
Jesus arkitu artean.



Ernai jendeak, esna kristabak  
 Alcha bakoitza kontentuz,  
 Adi zeruko berri aundia  
 Gaur jayotzendala Jesus;  
 Guazen Belena ariñ, ez bedi  
 Bidean iñor gelditu,  
 Guazen, kontentuz, pozez, alaiki,  
 Jesus dezagun arkitu.

Ongi etorri Jesus  
 Zeruko frutuba  
 Guk oroipena zuri  
 Aur bedeinkatuba;  
 Semecho jayo berri  
 Aitak bigalduba  
 Amari aingerubak  
 Lenik aginduba.

Ongi etorri Jesus  
 Erredentorea  
 Aurcho jayo berria  
 Berdinik bagea:  
 Beste gauza guztiaz  
 Chit guztiz obea  
 Zeru eta luraren  
 Jaun eta Jabea.

### ZIRI-BIURSA.

Eche churi bat dago  
 Mendiška gañean;  
 Ez da euririk sartzen  
 Ateri danean;  
 Ez ta aizerik, ere,  
 Ez dabillean.

### KONTENTU!

Bí mutill baserritar  
 koškor pocholuak,  
 etziran nere ustez  
 arkitzen beruak.

Elurrak goizetikan  
 lurra zuriturik,  
 zeunden erdi jantziyan  
 biyak eta oñutsik.

Galtza mochak tirante  
 oyal ertzarekiñ,  
 zulo bat falta gabe  
 bakallabarekiñ.

Masaill gorriyak, begi  
 alai, ez motelak,  
 ezpañaren gañian  
 zintzillik kandelak.

Gosari zai egonik  
 echien aurrian,  
 asi ziran esaten  
 alkarren artian:

—Errege baintzake  
 ik zer jango uke?  
 —Errege banitzake?  
 naiko talo t'esne.  
 —Eta ik? tira, esantzak.  
 —Nik... nik... jatzekiat!  
 onenak ik esanta  
 Izér esango diat?



## ESAERA ZARRAK.

Ardi chikiya, beti bildots.  
Gurasoak nolako, umeak alako.  
Ollo gosea kantari.  
Surik ez dan lekutik, ez da ateratzen kerik.  
Nolako Peru, alako Mariya.  
Sasiak ere belarriak ditu.  
Berriketa asko duenak, gauza on guehi.  
Gezurra esan nuen mendian, ni baño lena-  
go zan erriyan.  
Pake charra obea da, gerra ona baño.  
Nolako biotza, alako arpegiya.  
Nai ez dedala naramate nai dedan lekura.  
Echeko sua echeko autsaz estali bear da.  
Ez itzegin, ezpada nai utsegin.  
Ardiak beeka egonik, ez du jaten belarrik.  
Choriak lumatik zer dan ezagun dik.  
Ez dek larrosarik arantza gaberik.  
Goizean oidei gorriak, arratserako euriak.  
Ezkilla nai ez duenak aditu, ez beza soka as-  
tindu.  
Urte euritsu, urte ogitsu.  
Laratzak badaki echeko berri.  
Eguzki ta euria, Marchoko eguraldia.  
Ogi erre-berria, eche-galgarria.  
Santa Katalin̄etan, chalupak ainguretan.  
Echeari eusteko abe charra urte askoan mu-  
til zarra.

## BOTUEN BILLA.

Boto-billa zebiltzan batzuek joan ziran bein  
batean zapatari batengana botua eskatzen;  
eta onek, sekulan ikusi etzituen aiek bere  
dendan ikusi zitueenan, galduet zien:

—¿Zér dakartzute?

—Botua eskatzen gatoz—esan zioten.

—¿Botuen billa zatozte, botuen billa? Etze-  
rate ala efortzen boten billa. Joan zaitezte,  
bada, botuen billa, boten billa joaten zeraten  
tokira.

## IGELAK ETA BELEAK.

Igelak beleari,  
azpitikan goora,  
**koa, koa, koa**, kantatubaz  
egin zien burla;  
eta oek segiran  
aserraturikan,  
herari zien egin  
**kro, kro, kro**, goitikan;  
bada artatik denak  
okerturik oso,  
zien burlaka gogor  
alkarri eraso.  
Ipurt beltzak zioten  
deitu azpikoak,  
eta petral zikiñak  
berriz gañekoak.



Esanaz, onetaz gaiñ  
burlas igelari:  
—eztiagu zuékin  
nai izketan ari,  
gu gaituk nonai oso  
ondo ikusiyak,  
zeren azaltzen geran  
chukunki janziyak;  
bañan zuek or zaute  
udan, non neguban,  
beti larrugorriyan  
Adan-en moduban,  
zingira tarte ortan  
denen parragarri;  
obe zenuteke, ur  
ori, garbi jarri,  
lotsagari char oiek  
beste moduz bizi,  
eta kantatutzen guk  
bezela ikasi—  
eta au esateaz  
egaturik parrez,  
lotsaz ziran igelak  
gelditu negarrez.  
  
Onek erakusten du,  
besterik burlatzen  
abiatu bañan len,  
jartzeko pensatzen;  
ia, otedakarren,  
berak zer burlatu  
eztezan aundigon bat  
arpegira artu.

Eskotilla kaleko  
sastreri batera,  
baserritar bat galtzak  
eragiñ aztera  
juantzan, ateratubaz  
chapela burutik,  
kriantza onarekiñ  
jarriyaz burutsik.

Esan ziyon desio  
zitubela galtzak,  
jai aundiyetarako  
oyalezko beltzak,  
kondiziyuarekiñ  
illetik illera,  
zortzi pezeta edo  
amar pagatzera.

Sastriak begiratu  
ziyon kontu aundiz,  
burutik oñetara  
beiñ edo bi aldiz:  
baita eranzun ere  
konforme zegola,  
itza kunplitzen bazu  
gizonak bezela.

Neurriya artu diyo  
itz ayek esan da,  
eta baserritarra  
erdi farrez juanda.

Galtzak egiñ zizkala  
itzeko sastriak,



204

bi illabete ziran  
ondoko pasiak,  
baña baserritarra  
buru gaiztokua,  
aztu egiñ zitzayon  
amar peztakua  
nonbait eramatia  
ill aurrenenguan,  
eta gogoratu ez  
berriz urenguan.

Baserritik kalera  
zeturren guziyan,  
nonbait ala erori  
zitzayon graziyan  
zerbait burla moduban  
kaliartatikan  
maizcho pasatutzen zan  
ikustiatikan.

Sastria chit arrazoiz  
gogotik keja zan  
eta beregan diyo  
pasatutzen bazan  
berriz chiripaz ere  
aren kaletikan,  
lotsatuko zubela  
bazuben lotsikan.

Etziran iru egun  
pasatu artian,  
gure baserritarra  
kalia betian  
besuak zabalduta  
kale goitik hera  
non datorren, ta zapla  
sastria atera,  
irten ta deitu diyo  
oso aserrian:

—Zu eta galtzak?

—Galtzak?

estucho gerriyan.

## ESNE SALTZALLEA.

205

Neskacha bat zijoan  
Plazara neguan,  
Eskuan chanchilla ta  
Kaikua buruan.  
Gorputz liraña zuen,  
Gerrya chit mea,  
Illea erporaño,  
Urre kolorea;  
Perla gisako ortzak,  
Aoa chikiya,  
Begiak beltz andiak,  
Ezpaña gorriya;  
Ibillian iñori  
Ezer zor ez zion,  
Itz batean, jendeak  
Begiratzen zion.  
Lasterka bere buru  
Zijoan itzketan,  
Itz egiten zuela  
Pozez era onetan:  
Esne au nerea det,  
Ala aitak esan dit,  
Saldu ta diru asko  
Niri emango dit.  
Bereala beaitut  
Arraultzak erosoi,  
Saski bat bete arraultz  
¿Izango det noski?  
Uda-berriya dator;  
Maiz nere burua  
Chitoz ikusiko det





206

Nik inguratua.  
Egiten diranean  
Ollanda, ollasko.  
Artuko det ayekin  
Dirurikan asko,  
Erosteko ferian  
Aurrera cherriya,  
Berešitzen derala  
Albait umaziya.  
Ugari izan bait da  
Chit aurten ezkurra,  
Joaraziko diot  
Laster tripaz lurra.  
Nola izango duen  
Urdaya lodiya,  
Artuko det onekin  
Nik diru andiya,  
Eta erosiko det  
Chalcho bat urriña,  
Umeak egin ditzan  
Echekoen giña.  
Urte asko baño len,  
Badet nik ustea,  
Arkituko haizela  
Ganaduz betea.  
¿Ozta izango alda  
Errian neskachik,  
Dotea nik adiña  
Izango duenik?  
Asmo oyek egiten,  
Ari dan artean,  
Irriſtatzen zayozka  
Bi oñak lurrean;  
Adiyo aren esne,  
Arraultz ta chitoak,  
Adiyo cherri, chal ta  
Dote guztizkoak.  
Askotan dirudite  
Gure esperantzak  
Osoro chakurraren  
Gaberdiko ametsak.

Donostia-tik Probinzi ontako erriyetarako 207  
eta Bilbaorako ateratzen diran kocheak.

Bilbaorako, Zarauztik, Getariyatik, Zumatik, Azpeiti—Azkoitiyetatik eta Elgoibartik igaroaz eta andik aurrera burni-bidean, goizeko 7-etan ateratzen da; arratseko 8 1/2-etan itzultzen da.

Motrikurako, Zarauztik, Getariyatik, Zumatik eta Debatik igaroaz, goizeko 11 1/2-etan ateratzen da; eguerdiko 12-etan itzultzen da.

Zumayarako, goizeko 8 1/2-etan ateratzen da, eta arratsaldeko 7-etan itzultzen da.

Beste bat, ostegunetan eta igandeetan, arratsaldeko 4-etan ateratzen da, egun oyetau beretan goizeko 10-etan onera iristen dana.

Zarauzako, Garagar-illaren asieratik Agorraren bukaeraraño arratsaldeko 4-etan ateratzen da; goizeko 9-etan itzultzen da.

Koche ori bera, beste gañerako illetan, ateratzen da arratsaldeko 3-etan, eta itzuli goizeko 9-etan.

Oriyorako, Usurbill-tik igaroaz, neguan arratsaldeko 2 1/2-etan atera, eta goizeko 8 1/2-etan itzultzen da; udan arratsaldeko 3-etan atera, eta goizeko 8-etan itzultzen da.

Tolosarako, goizeko 6 1/2-etan eta arratsaldeko 3-etan ateratzen da, eta goizeko 9-etan eta arratsaldeko 6-etan itzultzen da.

Billabonarako, arratsaldeko 3-etan ateratzen da, eta goizeko 9-etan itzultzen da.

Ernanirako, goizeko 11-etan eta arratsaldeko 4 1/2-etan eta 5-etan ateratzen da, eta goi-



368 zeko 9-etan eta arratsaldeko 3-etan eta 3 1/2-  
etan itzultzeu da.

Pasayarako, goizeko 11-etan ateratzen da.  
» 9 1/2-etan itzultzen da.

Lezorako, goizeko 7-etan, 9-etan eta 11 1/2-  
etan, eta arratsaldeko 1 1/2-an, 2-etan eta  
5-etan ateratzen da, goizeko 10-etan eta 12-  
etan, eta arratsaldeko 4-etan eta 7-etan itzul-  
tzen da.

Oyarzunako, arratsaldeko 3-etan ateratzen  
da, eta goizeko 9-etan itzultzen da.

Irunako, goizeko 7-etan eta arratsaldeko  
3-etan ateratzen da, eta goizeko 10-etan eta  
arratsaldeko 5-etan itzultzen da.

---

### MAREAK.

---

Illargi berria edo betea dan egunetan, 3-etan  
izaten da marea goyan, Donostiako portuan,  
eta bean 9-etan. Illargi-laurdenetan, 9-etan  
goyan eta 3-etan bean.

Mareak igarotzen ditu 6 ordu eta 12 minu-  
tuterdi gora, eta beste ainbeste bera.

Illargi berria edo betea danean, itsasoko  
urak asko igo ta jechitzen dira, ~~ta erregatik~~  
esaten zayote egun oetako mareak ~~marea bi-~~  
ziak. Illargi-laurdenetan, gutxi mugitzen di-  
ra, ala gora nola bera: beragatik ~~marea illak~~  
izendatzen dira.

Urteko marearik aundiak izaten dira  
egunak eta gauak berdintzen diranean, an da,  
Marchoan eta Agorrean. Gafera, gorako in-  
darra ematen dio aizé bendabalekoak, ken-  
tzen diolarik ifarrak eta eguraldi ~~de la~~ garbiak.